

Jean de la Fontaine idazle frantziarra hamazazpi garren mendean bizi izan zen eta beste batzuen artean, 243 fabula zeuzkan liburua idatzi zuen. *Otsoa eta txakurra* haietako bat da.



## OTSOA ETA TXAKURRA

Bazen behin otso gazte bat.



Egun batean, herritik urrun zegoen oso txakur argala ikusi zuen eta, noski, txakurrari oldartu zitzaion. Hain ahul zebilen txakurrak esan zion: -Kontuan hartu, otso jauna, nire gorputz eskasa. Itxaron apur bat ni harrapatzeko. Entzun! Nire jabeak bere alaba bakarra ezkonduko du eta ezteietan, nahita nahi ez, gizenduko naiz-. Otsoak sinestu eta askatu zuen.



Egun gutxi batzuk pasa ondoren itzuli zen otsoa bere txakurra loditu zen edo ez ikustera; baina, txakur argia etxeko babesean zegoen eta burdin-hesitik esan zion: -Oraintxe bertan aterako gara atezaina eta biok. Itxaron pixka bat, laguna-. Atezaina txakur ikaragarria zen. Otsoak di-da batean menperatzen zituen; hain zen handia!

Otsoa une batez gelditu, “goraintziak atezain jaunari”  
esan eta berehala, ziztu bizian atera zen handik.

Hanka azkarrak zituen baita burua ere. Baina garai hartan  
bere otso lanbidea ez zeukan ondo ikasia.

